



# EPE 2016 BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOA

Data: 2016ko ekainaren 2

## PROBA PRAKTIKOAREN EZAUGARRIAK

**FRANTSESA ESPEZIALITATEN ALDAKETA:** Itzulpen ariketa euskaraz egiteko aukera gehitzen da, beraz proba praktikoaren ezaugarriak honela geratzen dira:

### FRANTSESA

Frantseseko espezialitatearen azterketa praktikoak honako alderdi zehatz hauek izango ditu nagusiki:

Testu bat gaztelaniatik edo euskaratik (izangaiaren erabakia) frantsesera itzultzeko ariketa.

Testu bat frantsesetik gaztelaniara edo euskarara (izangaiaren erabakia) itzultzeko ariketa.

Irakurritakoa ulertzen dela ebaluatzeko testu bat; horri buruzko analisi-galderei erantzun beharko zaie. Horrez gain, beste galdera bat egongo da; bertan, talde-ikasgela bateko irakaskuntzako esku-hartze bat diseinatu beharko da, testuan oinarrituta (fonetika, lexikoa, morfologia, zibilizazioa...), eta adierazi beharko dira, halaber, irakaskuntza-ikasgela metodologia eta ikasleek atzerriko hizkuntza bat ikasteko garatu behar dituzten gaitasunak (baita zeharkakoak ere, halakorik balego).